

Heri Aldizkaria

# otomotz

2003ko azaroa 91. alea



## Mendeurren bakarra, bi teoria

IRITZIZ-IRITZI: J.M. BEREZIARTUA ETA GOTZON ARANBURU

ERREPORTAIA: JERONIMO ITURBE "AGIÑETA"

IZERDI PATSETAN: HERRITARRAK BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETAN



# *asirauto*



**Bigarren eskuko autoetan  
aukera zabala**

**Mugitegi industrialdea, URRETXU**

Telf. eta faxa: 943 72 59 22

Mugikorra: 659 67 89 79



# ARGAZKI ZAHARRA



“Maestros Nacionales” ikastetxean antolatzen zen gabon kanten lehiaketako 1954ko ekitaldian ateratako argazkia.

Ezkerretik eskubira: Jose Luis Benito, Anjel Korta, Jesus Alvarez de Arkaia, ... Urbizu, ... Monasterio, Josetxo Busca, ... Bastarrika, Jose Etxaniz, ... Monasterio, Edorta ..., ... Zabalo eta Don Abundio Alvarez de Arkaia.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte.

Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73.

**Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.

**Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

**Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



**MAPFRE**

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



**OSTATU ITSASO**

☎ 943 88 03 15 - Itsaso

**PLAZAOLA**

**ITURGINTZA**

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA

943 72 13 70



**UROLA**

**ELEKTRATRESNAK**

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

2003ko azaroa



## Ostadarren Mendi Astea

Igande honetan Ostadar mendi taldearen XX. Mendi Asteari hasiera emango zaio. Mendi Asteari hasiera, ohitura den legez, Anjel Etxeberriaren omenezko haur ibilaldiak emango dio.

Astelehenetik ostiralera bitartean, 20:00etan, diapositiba emanaldiak izango dira. Astelehenean, Urretxuko Kultur etxean, Xabi eta Andoni Ormazabal anaiek "Elurretako leopardoaren bila" emanaldia eskainiko dute. Asteartean, toki berean, Juan Mari Gabilondok "Euskal Herriko mendiak" izenburua duen emanaldia eskainiko du.

Asteazken, ostegun eta ostiraleko emanaldiak Zelai-Arizti aretoan izango dira. Asteazkenean, Mikel Saez-ek "Alpinismoa munduan zehar" emanaldia eskainiko du, ostegunean Josune Bereziartuk "Munduko eskalatzailerik onena. Bloketik Bulneseko Naranjora" emanaldia eta ostiralean, Jose Ramon Agirre "Marron"-ek "Hegan egitea gizakiaren ametsa. Cho Oyu (8.201m)" izenburua duen emanaldia.

Datorren larunbatean, hilaren 29an, Ostadarreko bazkideek Batzar Nagusi Orokorra izango dute elkartearen egoitzan. Bukatzeko, iganderako (hilaren 30erako), mendi irteera antolatu dute. Mendizaleak Arabara joango dira. Pinedotik irten eta Alto de Rodil (1.031 m), Risca (1.003 m) eta Raso (1.046 m) mendiak igo ondoren, Uribarri Gaubeara jaitsiko dira. Bukatzeko, inguruan bazkaria egingo dute.

## Aranburu familiak irabazi du aurtengo buzkantza lehiaketa

Aranburu familiak irabazi zuen hileko lehen igandean Zumarragako XXI. Buzkantza Lehiaketa, "Jose Maria Busca Isusiren Omenezko XVIII.a". Aurtengo lehiaketan 7 odolkgilek parte hartu dute. Aranburutarrek 300 euroko saria eta prentsan iragarkia irabazi dute. Bigarren saria, 300 eurokoa, Ormaiztegiko Iñaki Camposek irabazi du eta aurkezpen onenari ematen zaion saria, 180 eurokoa, Jesus Mari Debarentzat izan da.

Azaroaren 3ko igande goizean, eguraldi bikaina lagun, jende ugari bildu zen Euskadi enparantzako arkupetan buz-

kantzak dastatzeko eta antolatutako ekitaldiak ikusteko asmoz. Ohiko artisau lanen erakusketaz eta tailerrez gain, Euskadiko Toka Txapelketako finala ere izan zen.



## Itsaski zozketa

Argazkian ikusten dituzuen Arantxa Gabiriak eta Balentin Berriotxoak irabazi zuten Zintzo-Mintzoren urriko itsaski zozketa. Azkeneko zozketa, azarokoa, Angel Mari Arnaizek irabazi du. Hurrengo zozketa abenduaren 5ean egingo da.



# Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

2003ko azaroa



## Elkartasun Dendaren irekiera

Ostiral honetan, hilak 21, irekiko ditu bere ateak Zumarragako parroki elizako Kilimetrak Aisialdi Taldearen eta Misiotako Taldearen Elkartasun Dendak. Denda hau abenduaren 23a bitartean zabalik izango da, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 5etatik 8etara eta larunbatean goizeko 9etatik eguerdiko 1etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara. Aurten, iaz bezala, denda garai batean Central Hispano zen lokalean dago, Zumarragako Secundino Esnaola kaleko 4. zenbakian. Lokala BSCH bankuak utzi die.

Denda honetan Afrikatik ekarritako artisautza lanak, COPRODELI gobernuz kanpoko erakundeak bidezko merkataritza bidez erositako jakiak, loteria eta parrokiako haurrek marraztutako postalak izango dira salgai.

Ateratako dirua Angolako Luanda hiriburuko ospital batera bidaliko da, haurdun dauden emakumeentzat eta sabeleko arazoak dituztenentzat ekografiak egiteko aparailu bat eros dezaten. Angolan guda izan da duela bi urte arte eta angolarrek gabezia larriak dituzte.

## Antioko taberna guztiz kiskalita

Herritarren ikusmina piztu duen Antioko taberna berria guztiz erre zen azaroaren 14ko gauean. Eraikuntza lana ia bukatuta zegoen eta tabernak abenduan ireki behar zituen ateak. Sutea gertatu eta biharamunean kaleratutako komunikatuan, Zumarragako Udalak taberna berreraikitzeke lanari lehenbaitlehen ekingo diola jakinarazi zuen. Dena ez da txarra izango eta, Aitor Gagok eta Joseba Izagirrek hartu duten Santa Barbarako tabernak datorren astelehenean ireki behar ditu ateak.



## Pello Lizarralderi Euskadi Saria

Iruñean bizi den Pello Lizarralde zumarratarrak irabazi du, "Larrepetit" eleberriarekin, euskarazko literaturako Euskadi Saria. Zumarragako idazleak, Ereinek argitaratu duen liburu honetan, espexetik ihesi doazen bi lagun pasadizoak kontatzen ditu. "Larrepetit" lanaren aurkariak Juan Kruz Igerabideren "Maisu isila", Anjel Lertxundiren "Zorion perfektua",

Karlos Linazasororen "Inoiz izan ez garenotan" eta Xabier Montoiaren "Baina bihotzak dio" izan dira. Pello Lizarraldek (1956) 1978an plazaratu zuen lehen liburua ("Hilargiaren hotzikarak"). Ondoren, "E'pericoloso sporgersi" (1984), "Hatza mapa ganean" (1988), "Sargori" (1994), "Un Ange passe -Isilaldieta-" (1998) eta "Larrepetit" (2002) plazaratu ditu.

Herri Aldizkaria  
**Otamotz**  
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.  
**Merkea eta ona!**

**Darmanki**  
Edergintza  
Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium  
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona  
**ARTURO**  
Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20  
URRETXU

**ETXABURU**  
merenda-lekua  
S. Barbara bidea  
☎ 943 72 22 77  
URRETXU

**GUREA**  
Iturgintza  
Bainurako altzariak  
Gas instalazioak  
Berogailuak  
Bainuak...  
Barrenkale 17- ☎ 72 12 67  
20700 URRETXU



## Gurasoentzako euskara ikastaroak

Urretxu eta Zumarragako Udalek 3, 4 eta 5 urteko haurren guraso erdaldunentzako ikastaroak antolatu dituzte. Ikastaro hauen helburua guraso erdaldunak euskararekin kontaktuan jartzea da. Beste modu batean esanda, gurasoek haurrei irakurri eta entzundakoa (abestiak, ipuinak...) ulertzea eta doinu egokiz irakurri eta abestea da.

Ordu eta erdiko saioak dira, astean bi egunetan (arratsaldean, haurrek eskolan dauden bitartean), udal euskaltegian, maiatzaren azkenera arte. Haurrek eskolan erabiltzen duten material bera era beretsuan lantzen dute gurasoek. Ikastaro hauetan parte hartu nahi duten gurasoek Urretxu edo Zumarragako Udaletako Euskara zerbitzuetara deitu behar dute. Matrikularen kostua 25 eurokoa da.

Horrez gain, udal euskaltegiak eta bi udalek laguntza sistema berezia dute ezarrita euskaltegiko talde arruntetan (euskalduntze nahiz alfabetatze taldeetan) euskara ikasi edo hobetu nahi duten gurasoentzako.

## Ibai-Ondoren inaugurazioa

Hilaren 3an Zumarragako San Kristobal auzoan dagoen adin txikikoen Ibai-Ondo zentrua inauguratu zen. Zentrua bi urteko atzerapenarekin ireki zen abuztuan, 2001ean ETak jarritako leherkariak ia guztiz suntsitu baitzuten. Egun, 7 adin txikiko daude bertan.

Ibai-Ondo zentruak 14 eta 18 urte bitarteko mutilentzat 36 plaza ditu. Gazteak erregimen itxian, erdirekian edo terapeutikoan izango dira, elkarrengandik banandutako bost taldeetan. Talde bakoitzak banakako logelak, egongela, jolasgela, telefonoa eta bainugela ditu. Horrez gain, aislamendu logelak ere badaude. Taldeak zentruko arduradunak osatzen ditu, mutil bakoitzaren jarraitzaile araberak. Mutil bakoitzaren erregimena ere bere jarraitzaile araberak zehaztuko da.

Gestioa IRSEren esku dago, baina 2004ko martxotik aurrera Eusko Jaurlaritzako funtzionarioek hartuko dute gestioaren ardura. Izan ere, Justizia Sailak du zentruaren titulartasuna.

## Gimnasia erritmiko eskolaren 20. urteurrena



Urretxuko gimnasia erritmiko eskolak bere sorreraren 20. urteurrena ospatu zuen joan zen asteburuan. Ostiraletan igandera bitartean 20 urte hauetan ateratako argazkiak izan ziren ikusgai Juan de Lizarazu aretoan. Larunbatean, berriz, egungo ikasleak eta garai batekoak elkartu ziren klase bat emateko eta bazkaria egiteko. 20 urte hauetan Urretxu-Zumarragako ehundaka neska pasa dira gimnasia erritmiko eskolatik. Egun, ehun neska inguru

dabilza eskolan. Arrakasta honen erruduna Beatriz Saiz da. Beatriz izan zen eskola sortu zuena eta, ordutik, eskolako irakaslea da. Beatrizek ilusio handiz lan egiten du eta horrek neskenengan ere eragina du. "Neskak zoragarriak dira. Eskola kirolean hutsunea nabaritu nuelako hasi nintzen honetan lanean eta lan hau maitatzera heldu naiz. Hori dela eta, berdin sentitzen jarraitzen dudana bitartean, lanean jarraituko dut".

## Nafarroako ikastolak aztergai



Hilaren 7an Nora Uribeberria Irunberriko Arangoiti ikastolako zuzendariak, Argiñe Korta Tuterako Argia ikastolako langileak eta Xabi Lasa Xabi Lasa Sartagudako

Deikaztelu ikastolako langile oihak Nafarroako ikastolen egoera azaldu zuten Urretxuko udaletxeko areto nagusian Lekaio Kultur Elkarteak gonbidatuta.



## Elkarriren Astea

Urola Garaiko Elkarriren tailerrek Elkarriren Astea antolatu du hil honetan. Hilaren 13an Fernando Arzallusek bake konferentzia berriaren gizarte eta prestakuntza fasea aurkeztu zuen Zumarragako Legazpi Dorretxean. Ondorengo egunetan, Elkarrikoak bake konferentziaren aldeko sinadurak biltzen izan ziren eta mahai informatiboa jarri zuten Areizaga-Kalebarren enparantzan.

Ekitaldi hauen guztiak 2004ko martxotik aurrera bultzatuko duten Bake Konferentziaren gizarte eta prestakuntza

fasearen parte dira. Fase honetan elkarrizketarako mahai alderdianitzaren aldeko 100.000 sinadura bildu nahi dituzte Elkarrikoek. Elkarrizketarako mahai alderdianitzaren aldeko manifestua eta sinadurak, proposamena tramitatu eta berari erantzuna emateko obligazioa duten Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dituzte. Aurretik, Elkarririk proposamenaren edukia- ren inguruan ahalik eta adostasun zabalena bilatzen saiatuko da alderdi politikok in batera.

## Santa Lutziak 2003

### Abenduak 5

19:00.- Juan de Lizarazun BASERRIA ETA LIHOAREN ERALDAKUNTZA PROZESUA erakusketa.  
19:30.- Itarte Etxean ITZIAR ALBISUAren PINTURA eta ESKULTURA lanen erakusketa.

### Abenduak 10

20:00.- Jardunaldi gastronomikoak. Sukaldaria: Iker Uranga. Gaia: Haragia prestatzeko moduak. Lekua: Urretxuko Txirimiri Elkartea.

### Abenduak 11

20:00.- Hitzaldia. Gaia: Santa Lutzi feria: lekuak, pertsonak eta animaliak. Guztia azoka. Lekua: Legazpi dorretxea

### Abenduak 12

18:30.- Iparragirre plazan, ERRIOXA ARABARREKO ARDO AZOKA.  
20:00.- Urretxuko Udaletxeko Areto Nagusian ARDO LEHIAKETA,  
22:00.- Ederrena pilotalekuan, afizionatuen arteko PILOTA PARTIDUAK.

### Abenduak 13

8:00-14:00.- Urdaneta hiribideko feria tokian, GANADU LEHIAKETARI hasiera ematea.  
NEKAZARITZAKO TRESNEN FERIA La Salle - Legazpi ikastetxeko patioan.  
Gernikako Arbola plazan: FRUTA eta BARAZKI LEHIAKETAK. EZTI LEHIAKETA. EUSKAL HERRIKO JAKIAK SALGAI.  
Euskadi plazan ERREZIL SAGAR, FRUTA eta BARAZKI LEHIAKETAK, ESKULAN ERAKUSKETA eta EUSKAL HERRIKO JAKIAK SALGAI.  
Kalebarren-Areizaga enparantzan OILASKO eta KAPOI LEHIAKETAK.  
13:30.- SARI BANAKETA.  
Egunean zehar:  
Iparragirre plazan ARDO AZOKA.

Zelai-Ariziti pilotalekuan, ZUHAITZ LANDAREAK eta abar salgai.

Urretxuko Iparragirre kalean, Zubimusu plazan eta Zumarragako trenbide gainean ESKULAN ERAKUSKETA eta salmenta.

Eta gainera, honako ekintza hauek izango ditugu:

9:00.- Urretxuko TXISTULARI taldearen kalejira; Iratzarri dultzaineroak ere kaleetan zehar izango dira.  
9:00.- Santa Lutzitako VIII. ARGAZKI RALLYA.  
10:00.- Tolosako dultzaineroen DIANA.

Egunean zehar.- Kalejiran ibiliko dira Zumarraga-Urretxuko trikitilariak.

10:30 - 12:30: "Secundino Esnaola" musika eskolako trikitilari taldea ibiliko da KALEJIRAN Zumarraga eta Urretxuko kaleetan zehar.

11:30.- Zumarragako Musika Bandak eta "Antzinako Ama" Txistulari Bandak elkarrekin egingo duten KALEJIRA.

12:30.- Ederrena pilotalekuan HERRI-KIROLAK: "URREZKO AIZKORA".

16:30.- Ederrena pilotalekuan PROFESIONALEN ARTEKO PILOTA PARTIDUAK.

17:30.- Euskadi enparantzan IDI PROBAK.  
Ondoren.- Euskadi enparantzan idi probetako SARIAK BANATZEA.

19:30.- Kalebarren-Areizaga enparantzan AKELARRE taldearen kontzertua.

### Abenduak 14

13:00.- Zelai-Arizitin EASO ABESBATZAREN kontzertua.

19:00.- San Martin de Tours Parrokian ORGANO ETA ABESBATZA KONTZERTUA.

### Abenduak 19

22:00.- Zelai-Ariziti Aretoan LUZIO GABIRIA ALUSTIZAREN OMENEZKO XVII. BERTSO JAIALDIA. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano, Unai Iturriaga eta Amets Arzallus.

# BIONA


## AROTEGIA

### Altzariak neurria

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

 kutxa.

fundazioa  
fundación

# EDURNE

## JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

 Lanbr̃ca.

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

 Keros Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61





J. M. Bereziartua, "Bere"

## Gauza sinpleak

Behar bada, edadearen ajeak izango dira. Kontua da geroz eta gutxiago gustatzen zaidala gauzei bueltak eta bueltak ematea. Uste osoa daukat gauza sinpleak direla bizitzako garrantzitsuenak. Budistek horrela pentsatzen omen dute; agian budista bihurtzen ari naiz konturatu gabe. Tira, bihur nadin budista, baina ez futbol zalea. Ez dugu horrelakorik behar.

Gauza sinpleak, nioen. Adibidez, Mikel Laboaren kantuak, Arantzazuko basilika, Joan Miroren koadroak. Mirok zioenez, bizitza osoa kostatu zitzaion haur baten moduan pintatzen ikasteak, haurrek duten gardentasunarekin. Ruper Ordorikak, berriz, dio grabatu duen azken diskoetan kendu egiten duela gehiago, erantsi baino. Gaur egun, hainbesteko zarata dagoen sasoi honetan, eskertzekoak dira mezu sinpleak eta gardenak.

Ez bakarrik mezua, bizimodu sinple eta gardenak ere bai. Duela gutxi izeba bat hil zaigu. Gaixorik pasatu ditu azken hilabeteak, eta azkenik joan egin da. Elizkizunetan egon nintzen. Senarra hantxe zegoen, zutik lurrera begira. Bilobek eta lagun batzuek koroe pare bat zermatzaten. Ixilik egon ginen, eliza atarian, apaizaren zain. Ixiltasuna ikaragarria zen. Ez zen negarrik, ez garrasirik. Min astuna zegoen aidean, eta mina sentitzen izan ginen apaiza atera arte.

Gero gorputza kanposantura eraman zuten. Hantxe, biloba bati helduta, egin zuen negar pixka bat osabak. Gero baserrian elkartu


ginen, beste izeba baten baserrian. Sukaldean, zutik, ama gabe gelditu berria zen lehengusua, beste osaba eta izeba bat... han egon ginen, hitz egiten, alargun berriak zulo handia edukiko zuela elkarrekin 50 urte egin ondoren. Izebak mokadutxo bat eskaini zigun, jan ez genuen mokadutxoa. Gero, nor bere etxera joan ginen. Bakoitza bere min sinple eta gordinarekin, inongo zalapartarik gabe.

Bizitza eta heriotza, jaio, bizi eta hil. Ez dago ezer gehiagoren beharrik. Pozak gozatu eta tristurak eraman ixilean. Ez ote den munduko ikuspegi hori galtzen ari, xinpletasun eta gardentasun hori. Agian, 40 urte egin behar ditudanez, zahartzen ari naiz eta, edadearen ajeak izango dira.

Agian, ez dut ondo azaldu. Literato baldarrak gara, zer egingo zaio. Artista batengana joango naiz laguntza eske. Taj Mahal sultan batek eraiki omen zuen hildako bere kuttuna loriatzeko. Niri, zer esango dizuet bada, gehiegi-keria iruditzen zait. Askoz nahiago dut Pello Errota zenak bere emazte hil berriari bota zion bertsoa. Bide batez, nire osabari eskaintzen diot maisu lan budista-sinple-minimalista (horrela esaten omen zaie honelakoei) hau:

"gazterik egin gendun, elkarrekin junta hogeit urte baño len, giñan ezkondata orain bakarrik nago jainkuak kenduta ay, zeruan balego, emazte difunta".

**Ferretería BRAVO, S.L.**




-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK  
-ELEKTRAGAIK  
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina  
☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31  
ZUMARRAGA




# ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

## Zer iruditzen zaizu asteburutan Kalebarren autoei istea?



**Antonio Luis Fernandez**

Oso gaizki iruditzen zait. Arratsaldez bakarrik itxiko balute, ondo irudituko litzaidake. Bestalde, kotxe asko hondatu dira saihesbidetik San Martinera sarrerako oztipoetan.



**Felix Gonzalez**

Erabaki zuzena iruditzen zait. Kotxean ibili behar denari ez zaio ondo irudituko, baina beharrezkoa zen. Asteazkenean istea gehiegizkoa izango litzateke.



**Jose Gonzalez**

Ez da denen gustuko erabakia izango, baina oinez ibiltzen garenok askoz ere lasaiago ibiltzen gara. Jaiegunetarako oso neurri egokia da.



**Ainhoa Villar**

Auto gidaria naiz, baina ez zait gaizki iruditzen. Oinezkoentzat abantaila handia da eta ez zait iruditzen gidariarentzat hainbesteko traba denik. Oinezkoak babestea ondo dago.



**Joxe Joakin Senosiain**

Jendea oinez ibiltzera ohituagoa balego, oso neurri egokia irudituko litzaidake. Neurri ona da, baina askotan trafikoa toki zehatzetan pilatu egiten da eta buelta handia eman behar da.



**Gurutze Mendiola**

Lehendik ere bueltak ematera ohituak gaude... Bidegorria egiteko errepidea zeharkatu behar den tokian zebrabide bat jartzea gustatuko litzaidake. Oinezkoak babestea ondo dago, baina ez dira eskubide guztien jabe.

*Muntatze eta Instalazioak Elektrikoak*  
**HERCE**  
*Subministrazioa, M. E.*

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

**TABERNA**

*Guerratu*  
**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

*belor zain*

Belardenda, dieta eta errejimen  
elikadura

Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80  
URRETXU

**PAKO VIERBUCHER**

Ezkontza erreportajeak  
Argazki estudio eta artxiboa  
Prozesu digitalak  
Bideo profesionala  
Argazkigintza materiala


Legazpi, 5 ☎ 72 11 55 Zumarraga	Labeaga, 43 ☎ 72 16 81 Urretxu
---------------------------------------	--------------------------------------

**URKI**  
liburudenda

Secundino Eshaola, 3  
☎ 943 72 42 98  
ZUMARRAGA



## Mendeurren



Aste honetan izaten ari dira Miguel Lopez de Legazpiren jaiotzaren bosgarren mendeurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldi nagusiak. Astelehenean mahaingurua izan zen Legazpi dorretxean. Ostirala bitartean, berriz, zumarratar handiari eta bere garaiari buruzko hitzaldiak izaten ari dira egunero Donostiako Miramar jauregian. Hitzaldi hauetan estatu mailako historialari garrantzitsuak parte hartzen ari dira. Ospakizun ekitaldiak erakusketa handi batekin eta Manilan egingo diren mahainguru batzuekin amaituko dira.

Legazpiren jaiotzaren mendeurren ospakizunak direla eta ez direla, zalaparta handi samarra sortu da. Izan ere, batzuen ustez, Miguel Lopez de Legazpi 1510 inguruan jaio zen eta Madrildik antolatu diren ospakizun hauek kutsu politiko garbia dute.

Polemika honi eta Legazpiren figurari buruz hitz egiteko, mendeurrena aurten ospatzearen aldekoa den Antonio Prada Zumarragako agirizainarekin eta ospakizunak hemendik urte batzuetara antolatu beharko liratekeela uste duen Mikel Aramendi kazetari itsasondoarrarekin hitz egin dugu.



# n bakarra, bi teoria

## Antonio Prada: "Legazpi 1502an edo lehenago jaio zen"

Antonio Prada historian doktorea da, Zumarragako historiari buruzko hainbat liburu argitaratu ditu, Legazpiren bizitza luze eta zabal ikertu du eta Miramar jau-regiko hitzaldietako batean Legazpiren gaztaroa azaldu du. Horrez gain, urriaren 30ean Miguel Lopez de Legazpiri buruzko hitzaldia eskaini zuen.

Azken hitzaldi honetan Legazpiren jaiotzaren mendeurrena zergatik ospatzen den aurten eta Miguel Lopez de Legazpi gutxi gorabehera noiz jaio zen azaldu zuen, besteak beste.

Pradaren esanetan, ezinezkoa da Legazpi noiz jaio zen zehaztea. "Nire ustez, Miguel Lopez de Legazpi berak ere, ofizialki behintzat, ez zekien zehazki noiz jaio zen. Izan ere, ez dago Legazpiren jaiotze data jasoko duen inolako dokumentu ofizialik. Jaiotze-agiriak 1870 ondorengoak dira, lehenago bataio-agiriak zeuden. Baina bataio-agiriak

Zumarragan 1521ean hasi ziren".

Legazpiren jaiotzaren mendeurrena aurten ospatzearen aurka dauden zenbaitek, 1510 inguruan jaio zela diote. "Hori esaten dutenak, Mexikoko erregeordeak Felipe II erregeari bidalitako gutun batean oinarritzen dira. Gutun horretan Mexikoko erregeordeak Felipe II-ari Miguel Lopez de Legazpi gutxi gorabehera 1510ean jaio zela esaten dio. Baina, nire ustez, bere itxuraren arabera 50 urte dituela eta, beraz, 1510 inguruan jaio zela esan nahi dio gutun horretan. Haiek ere ezin zuten zehazki jakin noiz jaio zen".

Antonio Pradak ere ez du ziurtasun osoz esaterik Legazpi zein urtetan jaio zen, baina oso argi du noizko jaioa zen. "1502ko apirilaren 12a baino beranduago jaio izana ezinezkoa da. Zergatik? garai hartako araudiak eskribaua izateko 25 urte beteak izan behar zirela zion.

## Mikel Aramendi: "Legazpi 1510ean edo 1511n jaio zen"

Mikel Aramendi ikasketaz filologoa da, baina betidanik kazetaritzan lan egin du. Hika aldizkariko kazetaria izateaz gain, Euskadi Irratiko eta Herri Irratiko tertulietan parte hartzen du eta Gara eta Berria egunkarietako kolaboratzailea da. Aramendik, Andres de Urdanetaren bizitza luze eta zabal aztertu du eta hala, ia ezinbestean, Legazpirena ere bai.

Elkarrekin Filipinetara joan ziren bi goierritar hauen jaiotegunaren inguruan eztabaida handi samarra da historiografi munduan. Aramendiren iritziz eztabaida hau "logikoa da, garai hartan ez baitzeuden egun dauden dokumentuak".

Aramendik, Legazpi 1510 edo 1511n jaio zela diotenekin bat egiten du. "Historia zaharrek, ordea, biak zaharragoak egiten dituzte. Asko Navarrete itsas historialariaren lanetan oinarritzen dira hori esateko, baina Navarrete ez zituen ahal bezainbeste dokumentu aztertu. Nik, Tormok egindako azterketekin bat egiten

dut; honek, Legazpi 1510 edo 1511n jaio zela dio. Horretarako, Velasco, Mexikoko erregeordeak eta Urdanetak Felipe II erregeari bidali zizkieten gutunetan oinarritzen da. 1561ean bidalitako gutun hauetan garai hartan Legazpi 50 urte zituela esaten diote erregeari".

Mikel Aramendiren ustez, Urdanetak Legazpiren adina ondo ezagutzen zuela pentsatzeko hainbat arrazoi daude. "Urdanetak eta Legazpi oso ondo ezagutzen zuten elkar. Hartu-eman handia izateaz gain, ahaideak zirela ere uste da. Izan ere, Velascok erregeari ahaideak zirela esan zion, nahiz eta oraindik ezin izan den zehazki frogatu. Beraz, ez da harrizkoa Urdanetak Legazpiren adinaren berri zuzen-zuzena izatea. Gainera, Urdanetak datuak beti zehatz-mehatz ematen zituen, eta erregeari Legazpiren adinaren berri emanez idatzi zion gutun hartan ez zuen 'gutxi gorabehera' espresioa ere erabili".



Gaztelako kontzejua oso zorrotza zen kontu horretan: 25 urte beteak zituela frogatzen ez zuenak, ez zuen eskribaua izateko azterketa egiterik. Carlos V enperadoreak ganbara kontseilukoei Legazpiri azterketa 1527ko apirilaren 12an egiteko eskatu zienez, argi dago egun horretarako 25 urte beteak zituela. Zaharragoa izan zitekeen, baina gazteagoa ez".

Pradak dioenaren arabera, aurten ez da inongo mendeurrenik betetzen. "Kontua pertsona horren jaiotzaren mendeurrena ospatzeak merezi duen ala ez da. Nire ustez, bai. Beraz, ospakizunak zenbat eta gehiago atzeratu, orduan eta okerrago. Duela urte batzuk jakinarazi nuen udalean Miguel Lopez de Legazpiren jaiotzaren mendeurrena betetzen zela eta ospakizunen bat antolatu beharko zela. Denbora pasa eta ezer ez zela antolatzen ikusirik, 2001ean atera zen Zumarragako gidako azalean Legazpiren jaiotzaren mendeurrenaren berri ematea lortu nuen. Ez dut esaterik Madrildik antolatu diren ospakizunek kutsu politikoa duten ala ez. Uztailearen 14an Madrigo jendea etorri zen eta ni tek-

## Antonio Prada: "Duela urte batzuk jakinarazi nuen udaletxean Miguel Lopez de Legazpiren jaiotzaren mendeurrena betetzen zela eta ospakizunen bat antolatu beharko zela"

nikariekin izan nintzen. Esan zidatenez, Legazpik eginikoez merezi dutelako eta Espainia eta Asia artean sekula ez delako ezer antolatu, antolatu dituzte ospakizun hauek".

Antonio Pradak ere oso argi du Legazpiren jaiotzaren mendeurrenak ospakizunen bat antolatzea merezi duela. "Zergatik merezi duen mendeurrena ospatzeak? Nire ustez, Legazpi oso garrantzitsua izan zen. Cristobal Colon, Francisco Pizarro edo Hernan Cortes adina? parekoa bai behintzat. Legazpik herrialde bat Gaztelaren eskuetan jarri zuen. Zergatik Legazpik ez duen aipatutako horien ospea lortu eta orainarte ez den ospakizunik antolatu? ez dakit, historiako gorabeherak oso korapilatsuak dira!".

Miguel Lopez de Legazpiri buruz behar baino gutxiago omen dakigu. Mendeurren ospakizunek bere lorpenei merezitako zabalkundea ematen lagundu dezakete, Pradaren ustez. "Garrantzitsua baina ezezaguna da. Hori dela eta, bere omenez zer edo zer egin behar dugu. Beste arrazoi bat ere badago: gaur egun jende



Legazpi 1502an edo lehenago jaio zela defendatzen dutenek, ordea, ez diete zor zaien garrantzia ematen Urdanetaren eta Velascoren gutunei eta Legazpiri eskribau izateko jarri zioten azterketa datan oinarritzen dira bere jaiotze-urtea zehazteko. "Ez dago Legazpik azterketa hura egin zuela egiaztatzen duen agiririk. Bestalde, eskribau izateko azterketa egiteko 25 urte beteak izatera behar izan behar zuten legea oso zorrotz betearazten zela diote; baina ez al zuten zorrotzago egiaztatuko espedizioburu izan behar zenaren adina? Espedizioburuak aukeratzeko buelta asko ematen ziren, bere adina eta osasuna argi izan behar zuten eta inoiz ez zuten agure bat espedizioburu bidaliko. Gainera, Velascok ere Legazpi oso ondo ezagutzen zuen Mexikon, eta ez zion erregeari gezurrik esango, bere zakurrik leialena baitzen".

Aramendiren iritziz aurten ez litzateke Legazpiren jaiotzaren mendeurrena ospatu behar, are gu-

txiago antolatu den moduan. "Madrilen batere pentsatu eta neurtu gabe antolatu dituzte mendeurren ospakizunak, entziklopedia zaharren bat aintzat hartuta. Mendeurrenko ospakizunen batzorde antolatzaileak Legazpi XVI. mendeko nabigatzaile gisa aurkeztu du. Legazpiri nabigatzaile deitzea historiari barre egitea da! Legazpik itsasontziz bi bidaiak soilik egin zituen: Mexikora eta Filipinetara, nabigazioan inolako ardurarik eduki gabe. Bestalde, batzorde horrek atera duen txanpon batean Legazpi armadura soinean duela ageri da eta ez dakit Legazpik sekula ezpata bat hartuko zuen! Legazpik koalizio politikoak eta abilezia erabili zituen Filipinak konkistatzeko. Errebindikazio erreala egin beharko lukete, ez karikatureskoa".


Hainbeste hankasartzeren atzean, arrazoi politikoak daudela uste du Mikel Aramendik. "Euskaldun espainolak aurkitzen presa handia dute eta, hortaz, ez diote



askok Miguel Lopez de Legazpi konkistatzailea zela eta, beraz, Cortesek, Pizarrok, Colonek... egin zuten bera egin zuela uste du. Hori ez da horrela. Hauek txirotak ziren eta Ameriketara aberastera joan ziren. Miguel Lopez de Legazpi kontrakoa egin zuen: joan aurretik aberatsa zen Mexikon eta diru guztia Felipe II-ak agindu zion egitasmoa aurrera ateratzen gastatu zuen. Txirotu egin zen. Bera hil zenean, Manilan, lapurrak bere etxera sartu ziren lapurtzera eta ez zuten ezer aurkitu. Orainarte dakiguna hori da eta ez dut uste besterik esango duen agiri berririk azalduko denik".

Legazpi, Felipe II-aren agindua betetzeagatik, bere ondorengoan etorkizuna ere kolokan jarri zuen. "Lehen alabek dotea bazuten soilik zuten ezkontzerik. Legazpi alaba gazteenarentzat doterik ere ez zuen eta ezkongabe gelditu zen. Legazpiren ondorengoek Felipe II erregeari beraiekin zuen zorra ordaintzeko eskatu zioten. Beti esan izan da Felipe II-ak ez zuela ezer ordaintzen, baina zer edo zer ordaindu ziela ikusi dugu".

Legazpi Filipinetara bidaia antolatzen bere aberastasun guztia xahutu bazuen ere, behin hara iritsita aberasteko aukera izango zuen ordea... "Gaur egungo pentsamoldearen arabera ulergaitza egiten bazaigu ere, ez zuen aberastu nahi izan. Bere kristau fedea oso indartsua zen eta ez zitzaion zilegia iruditzen Filipinetan aberastea".



**Mikel Aramendi:**  
"Legazpi koalizio politikoak eta abilezia erabili zituen Filipinak konkistatzeko. Bere erreibindikazio erreala egin beharko lukete, ez karikatureskoa"

gauzak ondo egiteari erreparatzen. Partido Popularrak espainiar nazio sentipenaren erreibindikazioa egiteko antolatu ditu mendeurren ekitaldiak, ez munduaren bi zatiren arteko zubia martxan jartzeko. Urdanetak eta Legazpi Espainiarentzat lan egin zutela esatea ez da gezur historikoa, baina Espainiak bere inperioaren inguruko irudi distorsionatua du. Kamenek dioten bezala, Espainiak ez zuen inperioa sortu, inperioak sortarazi zuen Espainia. Inperioa sortu aurretik koroa baten pean zeuden lurralde ezberdinak zeuden. Garai hartako Espainiaren antolaketa eta egungoa oso ezberdinak ziren. Pentsa, kasuren batean erregeak bere menpeko lurralde ezberdinei elkarrekin merkatal harremanak izatea debekatu zien! Propaganda tartean sartzen denean, ordea, egia historikoari errespetua galtzen zaio".

Aramendik, Legazpi mendeurren ospakizun hobeak merezi zituela uste du. "Betiko ospakizun motara jo dute eta inork ez du planteatu Legazpiren idatziak hartu eta edizio kritiko bat ateratzea ere. Pena da, Legazpi eta Urdaneta ez baitira

oso ezagunak, eta ezagutuak izatea merezi baitute. Nabigazioaren historiako hamar pertsona garrantzitsuenen artean izango litzateke Urdaneta, adibidez, eta biek elkarrekin ireki zuten Filipinetatik Acapulcora doan itsasbidea, egun munduko merkatal bide nagusia dena".


Bestalde, Aramendik argi utzi nahi du Legazpi ez zuela indarkeria erabili. "Kolonizatzailea izan zen, baina ez Pizarro edo Cortesen moduko konkistatzailea. Koalizio politikoak eta abilezia erabili zituen, politiko zaildua izan zen. Hala, Legazpi Filipinetan oraindik oso ondo ikusia dago eta bertan bereizgarritzat duten kristautasunaren eriletzat goستن dute".

Bukatzeko, Mikel Aramendik Urdaneta eta Legazpi euskaldunak zirela gogorazi nahi du. "Urdaneta euskaldun-euskalduna zen. Bere gaztelarazko idatzi-tan euskararen eragina izugarri nabaritzen da. Ez nintzateke batere harrizko noiz edo noiz euskarazko bere idatziren bat agertuko balitz. Legazpi ere euskalduna zela esango nuke, gaztelera ordiziarak baino askoz gehiago menderatzen zuen arren".



## “Agiñeta”, be

### Hilaren 9an “Aizkolar



Agiñarrek Jeronimo Iturbe Legorburu "Agiñeta" aizkolari handiaren omenez egindako eskultura inauguratu dute aurtengo San Martin jaietan. "Agiñeta"-ren omenezko eskultura, Agurtzane bilobaren ideia batean oinarriturik egin du Alfa Arte enpresak, Oleta elkartearen ekimenez eta Zumarragako Udalaren dirulaguntzaz. "Agiñeta" 36ko gerra aurreko urteetan Euskal Herriko aizkolari onena izateaz gain, ondorengo urteetan goi mailan ibili ziren hainbat aizkolariren maisua izan zen.

**“Agiñeta”-ren  
bizitzako  
zenbait  
pasarte  
Jesus Iturbe  
semearen  
eskutik**

**Azkoitikoa, Ordizikoa,  
Urretxukoa, Zumarragakoa...  
Agiñakoa!**

"Garai hartan aita Jeronimo Iturbe "Agiñeta" de Azkoitia zen. Azkoitiarrek azkoitiarra zela esaten zuten eta ordiziarrek ordiziarra zela han bizi zelako. Gero Urretxura etorri zen bizitzera eta, azkenean, Agiña Zumarraga bezala gelditu da".

**Pilotaria izan nahi zuen aizkolaria**

"Aita pilotazalea zen eta pilotariei inbidia zien. Izan ere, hainbeste prestatu beharrik gabe, hamabost egunean behin partida zuten. Aizkolaritza oso gogorra zen. Entrenamenduak prestatzeko koadrila bat behar zuten, bestela ez baitzuten egurra lortzeko dirurik. Apustua koadrilak egiten zuen. Aizkoran gustura ibiltzen zen, baina nahiago izango zuen pilotarako abilezia izatea".



## irako bere jaiotokian 'eskultura inauguratu zen Agiñan

Jeronimo Iturbe Agiñako Martiamuno baserrian jaio zen 1900go apirilean, San Prudentzio egunean. Hala, Agiñako apaizak Prudentzio izena jarri nahi izan zion. Aitak, ordea, Jeronimo jarri nahi zion. Eztabaida txiki baten ondoren, Jeronimo jarri zioten izena: *bai, bai... Prudentzio oso izen polita da, baina Jeronimo jarri.*

23 urterekin Jeronimo gaztea baserritik basora irten zen lanera. Euskal Herriko inguru askotan baso mutil ibili zen eta, dohain apartak izanik, aizkolari txapelketetan eta apustuetan hasi zen.

Garai hartan, Euskal Herriko txapelketa garrantzitsuenak Donostiako Atotxa futbol zelaian antolatzen ziren. Jeronimo 1927 eta 1931 bitartean Euskal Herriko aizkolari onena izan zen: hirutan, 1927an, 1929an eta 1930ean, Atotxako txapelketa irabazi zuen eta 1928an eta 1931n bigarren izan zen (Errekalderen eta Juan Garbizuren atzetik).

Jeronimo Iturbe "Agiñeta"-k

garaiko apostu garrantzitsuenetan ere parte hartu zuen. 1933ko abuztuaren 6an Donezteben jokatu zena, esaterako, aizkolariaren historiara pasa da zoritxarrez. Apustu hartan "Agiñeta"-k Urrozko Ignazio Saldias "Naparra"-rekin neurtu

### "Arria"-k 62 urte eta "Agiñeta"-k 63 zituztela, Tolosako saioaren errebantxa jokatu zuten

zituen indarrak. Bi aizkolari hauen arteko lehiak egungo futbol partidetakoko derby-en antzekoak ziren. Hala, apustua 12tan haste-koa bazen ere, Doneztebeko pilotaleku irekia jendez gainezka zen dexente lehenago. Sekulako beroa egiten zuela eta (33º itzale- tan), gipuzkoarraren koadrilak apustua

arratsaldera atzeratzea eskatu zion nafarren koadrilari. Hauek ezezkoa eman zuten eta lehiari hasiera eman zitzaion.

Beroa jasangaitza zela ikusirik, "Agiñeta"-k noizean behin atsedean hartzen zuen arnasa hartzeko. "Naparra", berriz, jendearen animoek bultzaturik, ia atsedetik hartu gabe jo ta fuego aritu zen. Hala, azken enberrari "Agiñeta"-ren aurretik ekin zion. Halako batean, lurrera ziplo erori zen konorterik gabe. Hau ikusirik, Jeronimok utzi egin zion lanari eta apustua nulo gelditu zen. Ignazio Saldias arratsalde hartan hil zen Iruñako ospitalean.

Herri kirol zaleen artean zeresan handia eman zuen beste apustu handi bat, "Agiñeta"-k eta "Arria"-k 1935eko maiatzaren 12an Tolosako zezen plazan jokatu zituztena izan zen. Orduan ere, plaza jendez gainezka omen zen. Pentsa, zaletuentzako Zumarragatik Tolosara joateko tren bereziak jarri zituzten! Agiñako semeak eta Arria zaharrak piztutako ikusminaren mailako saioa eskaini zuten: Tolosako hura

#### Doneztebeko apustu sonatua

"Aitari ez zitzaion Doneztebeko apustuaz hitz egitea gustatzen. Minez gogoratzen zuen. Apustu hura aita ezkondu zen urtean izan zen. Koadrilako batek gurasoen tabernara deitu zuen gertatu zena kontatuz, baina telefonoa hartu zuen neskak hil zena Agiñeta zela ulertu zuen. Amari ezer esan gabe, gorpua ekartzen zutenerako gela prestatzen hasi zen. Eskerrak horretan ari zela aita eta bere koadrila azaldu ziren!".

#### Kirolari garaikideen prestaketa

"Aitak gehiegi ez jatea oso garrantzitsua zela esaten zuen. Garai hartan, ordea, egunero 3 edo 4 txuleta, arraultza piloa... jaten zituzten. Aizpurutxotik gure etxera etorri zen mutil bat ez zebilen batere ondo. Amak gogorik ez bazuen ez jateko esan zion. Bi egunetan porrusalda hartzen izan zuen eta osatu ondoren apustua irabazi zuen. Aitak ondo jan baina beti gogoarekin gelditu behar zela zioen".

#### Erakusle bikaina

"Luxia eta Garziarenaren arteko lehen apustuan azken enberrari biek batera ekin zioten. Garziarenak azkar eman zuen bukatutzat lehen erdia. Aita harritu egin zen eta Gartziarenaren lana ikustera joan zen. Hala, Gartziarenak Luxia lehertzeko asmoz erdira heldu aurretik buelta eman zuela ikusi zuen eta Luxiari lasai segitzeko esan zion. Azkenean Luxiak irabazi zuen".



# ERREPORTAIA



"Keixeta", "Arlixeta", "Arria" eta "Agiñeta"-ri 1930ean ateratako argazkia.



"Arria", Yurrebaso, "Agiñeta" eta "Luxia", "Agiñetari" bere auzoan eskaini zitzaion omenaldian.

sekula izan den aizkora saio gogoangarrietakoa izan zen. "Arria"-k 35 minutu eta 57 segundu behar izan zituen 72 ontzatak 6 enborrak mozteko eta "Agiñeta"-k, berriz, 3 segundu gehiago. Bi golperen diferentzia besterik ez zen izan! Saio hura hain izan zen gogoangarria non 28 urte beranduago, "Arria"-k 62 urte eta "Agiñeta"-k 63 zituztela, errebantxa jokatu zuten Azpeitian. Orduan ere "Arria"-k irabazi zuen.

"Agiñeta" Euskal Herrian izan den aizkolaririk handienetakoa izan da. Agiñarra are mito handiagoa izango litza-teke 36ko gerraren pizteak aizkolaritza

uztera behartu ez balu. Ordurako Bidaniako Santutxo baserriko Joaquina Irizarrekin ezkondua zen eta Ordizian bizi ziren. Jeronimok eta Joaquinak abertzaleen bilgune zen Ordiziako Navarro taberna zuten eta 1939an Urretxura ihesi etorri behar izan zuten bi seme-alabak asto gainean hartuta. Geroztik Urretxuko Iparagarre kalean bizi izan ziren.

"Agiñeta"-k, gerra heltzearekin batera lehiatzeari utzi bazion ere, gerra ondorengo urteetako aizkolari handien irakaslea izan zen. Bere ikasleak izan ziren, besteak beste, Ramon Yurrebaso urretxuarra, Martzelino Zeberio, Juan

Jose Narbaiza "Luxia" eta Errekalde semea. Euskal Herri osoak Jeronimo Iturbe "Agiñeta" aizkolaritzaren maisutzat zuen, baina Nafarroan, Doneztebeko apustu sonatua zela eta edo, legenda bizia zen. Hala, urte askotan nafar gazte asko eta asko pasa ziren Iturbetarren etxetik aizkolaritzan ikastera.

Bere bizitzako azken urteetan "Agiñeta"-k ondo merezitako hainbat omenaldi jaso zituen. Jeronimo Iturbe 1985eko otsailaren 20an joan zitzaigun, baina hilaren 8az geroztik bere irudia eta bere oroimena sekula baino biziago dira Agiñan.

## Estrategia fina

"Luxiak Latasarekin apustu egin zuen eta irabazteko egur gogorra komeni zitzaion. Aita eta biok Lekunberrira joan ginen eta egur biguna hartu behar genuen plantak egiten ibili ginen. Bitartean, Luxia eta beste batzuk, beste nonbait, ahalik eta egur gogorre-na biltzen izan ziren. Plazara joan ginenean jendea txunditurik zegoen: *zer gertatzen da hemen? Luxiak egur biguna ekarri behar zuela eta gogorra ekarri?*"

## Adiskidetasuna aurretik

"Luxia eta aita sozioak izan ziren. Kontuak halamoduan izaten zituzten eta konpondu egin behar zituztela esaten zuen. Hala, Luxiarekin gelditu ginen Eibarren. Joan ginen, bazkaldu genuen, lasai ibili ginen... Arratsaldeko 5etan edo, aitari kontuak egiten hasteko garaia zela esan nion eta *gaur ondo gabiltza, beste batean egingo ditugu* esan zidan. Luxia laguna zuen eta ez zuen eztabaidarik nahi".

## Santa Lutzi feria mundiala

"Gure etxean beti aizkolari giroa izan da. Aitak ezagun asko zituen eta 50 bat nafar etortzen ziren Santa Lutzitan gure etxera bazkaltzera, pagatuta. Etxeko gela guztiak komedore bezala prestatzen ziren".



## Ramon Yurrebaso: maisuaren ikasle onena



Jeronimo Iturbe "Agiñeta" aizkolari askoren maisua eta erakuslea izan zen, tartean Ramon Yurrebaso urretxuarrarena. Yurrebaso duela 75 urte jaio zen Aietsu (Aitxu) baserrian. 8 urte besterik ez zituela morroi joan zen Agiñako Urdanbideta baserrira. "Hango nagusia "Agiñeta"-ren laguna zen eta aizkorarako afizio handia zuen. Ez nuen sekula pentsatu aizkoran arituko nintzenik, baina nagusiak balio nuela ikusi zuen eta lagundu egin zidan".

Ordurako Ramonek "Agiñeta" ezagutzen zuen, baina beranduago hasi zen berarekin. "Nire lehen aurkariak, Leturia auzoko Bitoriano Jauregiartzok, "Agiñeta"-ren zerrategian lan egiten zenez, "Agiñeta"-k ez bataren eta ez bestearen alde ez zuela egingo esan zuen. Hala, Keixetaren etxera, Urrestillara, joan nintzen prestatzera. Urretxuko frontoian lehiatu ginen. Sei pezeta kobratu zuten sarrera gisa eta arimari ere ez zen kabitzen. Vitoriano ni baino zaharragoa zen, baina ez zen aizkolaria eta irabazi egin nion".

Hurrengo urtean, Ramonek 19 urte zituela, berriro neurtu zituzten indarrak. "Zumarragako Udalak irabazleari 500 pezeta eta galtzaileari 60 duro emango zizkiola esan zuen. Garai hartan sekulako dirutza zen. Vitorianok bentaja eskatu zuen: saioa "Agiñeta"-

rekin prestatzea. Bigarrenago hartan errazago irabazi nion. Eskua eman zidan eta zera esan zidan: Ramon, ni baino gehiago haiz, barkatzen diat eta hemendik aurrera ahal dudan guztia lagunduko diat. Orduetik lagunak gara".

"Agiñeta"-k ere, Ramonek aizkorarako dohain apartak zituela ikusi eta laguntzen hasi zitzaion. "Soldadu joaterako bere etxean izan nintzen bi edo hiru hilabetez Gartziarenaren kontrako apustua prestatzen. Handik atzera urte askotan ibili nintzen "Agiñeta"-rekin. Hura zen nire maisua".

Ramon Yurrebasok ez du bere maisua izan zenaren inongo kexarik. "Aizkolari eta maisu bezala oso ona zen. Gogorra ere bazen, baina beti elkarrekin ibili ginen". "Agiñeta"-ren alboan Ramonek makina bat saio eta apustu jokatu zituen. "Apustu gehienak Tolosan jokatu nituen: Garziarenari, Baleztenaren, Goñiren, Latasaren, Txikito de Arruizen... kontra. Azken honen kontrakoan, korrikan eta aizkoran, Tolosako zezen-plaza bete genuen: 5.000 lagun bildu ziren. Txapelketarik ez nuen irabazi, ordea. Txapelketan parte hartzeko garaian soldadu joan nintzen. Soldaduskatik itzultzean txapelketan bigarren izan zen Baleztenari irabazi nion. Urte askotan ez zen beste txapelketarik antolatu".

### MURUA


Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



### RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak  
Labeaga 52-54 F URRETXU  
☎725682 ☎722292



### BAPRI

ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak


Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13  
ZUMARRAGA



Legazpi, 5  
☎943 726274  
ZUMARRAGA







Gotzon Aranburu

## Baserriak, abertzaleak eta sinboloak

Eztabaidarako gonbitea egin du Koldo Cadierno orrialde hauetan, Zumarragako baserriak direla eta. Marraztu egin ditu, ederki marraztu ere, eta lan horretan ari zela hainbat hausnarketa bururatu zaizkio baserrien balio arkitektonikoaz, baita euskaldunok sinboloei ematen diegun garrantziaz ere. Zehatzago esateko, abertzaleok ematen diegun garrantziaz.

Kontua ez da hemen baserriari kantu bukolikoak eskaintzen hasia, ezta nekazal munduaren idealizazio zentzuga-beetan murgiltzea ere. Jakina da baserriak, beste ezeren gainetik, bizitoki eta lantoki izan direla; helburu horrekin eraikiak izan ziren eta helburu hori bete dute. Baserriak ez dira artelanak, ez dira garai bateko agintariak (erregeak edo jauntxoak) euren boterea erakusteko zutitutako eraikinak, ez dira arkitekto entzutetsuek sinatutako maisu lanak... baina herri-arkitekturak Europak eman duen emaitzarik osatuenetakoa eta ederrenetakoa da Euskal Herriko baserria. Eta Cadiernok marraztu dituen horietako bozparei azpimarragarrienen artean daude. Izendapena jasotzeko bidean daude.

Lehendabiziko baserriak XV mendearen bukaeran eraiki ziren Euskal Herriko alderdi hezean, Alemaniatik ekarritako ereduari jarraituz, eta azkenak XX mendearen hasieran zutitu ziren. Aurretik ere aterpetzen ziren nonbait euskaldunak, jakina, eta ondoren ere bai, gure mendietan eta baileretan eraiki dira bizitokiak eta eraikitzen dira gaur egun ere, batzuk eder askoak, baina ez dira baserriak. Alegia, etnografian adituak direnek ondo asko azaldu dutenez, eraikin bati "baserri" deitzeko baldintza zehatz batzuk behar ditu. Baserria ez da granja hutsa, ez da bizitokia bakarrik, ez da bildegia edo ogi-labea edo ukuilua soilik; horiek denak batera da baserria, batzuetan sagardoa egiteko tolarrea gehituta. Elementu hauek guztiak armonikoki konbinatzean datza baserriaren interesa, horrek ematen dio kategoria aparta Europako herri-arkitekturari. Jakina, Euskal Herriko baserri guztiak ez dira estilo berekoak, ez dute denek aberastasun

arkitektoniko bera, eta Zumarragakoek ere ez. Harrigarria litzateke gero, herri batean 66 baserri izan eta den-denak azpimarragarriak izatea. Hori bai, hortik zehar begiak zabalik bidaiatzen duen edonork badaki ez duela Castillan, Galizian, Catalunyan edo Landetan euskal baserriaren pareko base-txerik arkituko. Kontua ez da konparaketak egiten eta umekerietan hasia; bakoitzak berea maiteko du, baina ez da lotsarik izan behar gauzak diren bezala esateko.

Are gehiago. Jakina da azken bost mendeetan euskalduntasuna eta Euskal Herriko nortasun eta izaera propioa nonbait zaindu eta gorde bada baserrian izan dela. Batez ere hizkuntza. Industriaren garapena, aurrerapen teknikoak eta ongizate mailaren haztea bizimodu urbanoari lotuta dauden bezala (bai Euskal Herrian eta bai Madrilen edo Moskun) euskal nortasunak irauteko ezinbestekoa izan da baserria. Hori hala da, eta alferrik da baserriarekin burulaiz aritzea, "casero" atzerakoa versus "urbanita" aurreratua jartzen aritzea, batzuek (ezjakinenak askotan) gustuko ariketa duten arren. Beraz, hona hemen gure hizkuntza, gure ezaugarri kulturalak, gure izaera propioa aldarrikatzen ditugunok, zergatik maite dugun baserria, zergatik duen guretzat hain balio sinboliko handia, Cadiernoren galderari erantzunez. Ez da harriztekoa, herrialde guztietan berdin egiten baitute; Estatu handia izan edo herri txiki eta gutxitua, denak saiatzen dira aurrerapen teknologikoa, soziala eta ekonomikoa ondare kulturalaren zainketaekin uztartzen. Estatu frantziarraren barrena ibiltzeko aukera izan dut joan den udan, eta Loirako gaztelu zoragarriak zaintzen dituzten bezala zaintzen dituzte Britainiako egurrezko eta harrizko etxeak. Ez naiz sinboloak sakralizatzearen aldekoa, hala banderak nola eraikinak edo musikak, erridikuloan erortzeko arriskua handia baita da -lerrook idazten ari naizela Espainiako armadaren desfilea eskaintzen ari da telebista eta Castellanan bildutakoek eskuak puskatu beharrean ari dira legionarioen ahariari txaloka-, baina ondare kulturala ahaztea eta alboratzea suizidio mota bat da. Cadiernok uste badu "sinboluei

garrantzia emateak aurrera egitea oztopatzen duela", eta ondare arkitektonikoa eta etnografikoa -edo hizkuntza, zergatik ez-traba egiten duten "sinboloak" besterik ez direla, hori bere arazoa da.

Alderdi arkitektonikoari dagokionez, Cadiernok bi isuriko teilatua gainditzeko deia egiten du, baserriak berritzeko orduan koloreak libre erabili behar direla irizten dio eta eraikin hauei bolumen gehiago gehitzea proposatzen du. Begira, Euskal Herriko Unibersitateko irakasle talde multidisziplinari batek, Alberto Santana aditua buru duela, "Euskal Herriko baserriaren arkitektura" liburua argitaratu berri du, ia mila orrialdeko liburua, eta bertan inoiz egin den azterketa sakonena egin dute eraikin mota honen tipologiari buruz. Lehendabiziko orrialdean diote baserria bi isuriko teilatudun eraikina dela, aglomeratua eta adosatutako gabea. Ehundaka baserriaren argazkiak dakartza liburuak, batzuk zurezkoak, beste batzuk harrizkoak, hango hura arkuduna, beste hura balkoiduna... baina margotuta dauden denak zuriz margotuta daude. Aitzabasoko nagusiei etxea urdinez pintatzeko eskubidea ez diet nik ukatuko, baina astakeria galanta egin dutela esango diet. Legazpi Etxea berri zute-nean berdez margotu eta kristalezko teilatua jarri eta acuarium batez inguratu balute ikusgarri geratuko litzateke, baina handik aurrera ezingo litzaioke dorretxe deitu. Beste kontu bat da eraikinari zer erabilpen ematen zaion, hor dago bilakaera; Chillidak Hernanin bere museoa egitea erabaki zutenean han zegoen baserri zaharra berri eta erakustoki bihurtu zuen, baina ez zuen erridikulizatu titaniozko plakak ezarriz.

Koherentzia arkitektonikoa bilatzea eta gustu txarrak eragindako astakeriak ekiditea, ondare kulturala zaintzeko ezinbestekoak dira. Arkitekturak bide asko ditu eboluzionatzeko, eta Zumarraga-Urretxun egiten ari diren hainbat etxebizitza berri dira horren erakusgarri; diseinu ausartak eta materiale modernoak erabiltzen badakitela erakutsi dute. Hori da bidea, eta ez baserriak pastitxe bihurtzea.



# ZORIONAK!



**Ainhoa**, oso irrifarre polita duzu, baina ea hurrengoan argazkilaria aurrez-aurre begiratzen duzun! Zorionak!



**Aitor**, haurri txistu jotzen irakasten hasi zara dagoeneko ala gaezan kantatzea nahiago al du? Zorionak!



**Amaia**, mototxa orritik ateratzen ziztaizun eta pittin bat moztu dizugu... dagoeneko ilea-paintzaile lanetan ere hasi gara!



**Ander**, lasai motel, Realak denboraldia makal samar hasi badu ere burua alxtatuko dute eta! Zorionak!



**Beñat**, aurki Santa Lutzia helduko dira, gero Gabonetako oporrak... alaitu aurpegi hori motel! Zorionak!



**Armando**, etzazu parre egin, azkenaldian piper egin duzulako zurekin oso haserre gaude eta! Zorionak eta ondo ibili!



**Andrea**, etxean, ileapaintzaileak baino, papiroflexia zaleak zaretela dirudi... Zorionak eta ondo ibili!



**Andoni**, zure burmuinaren eskuinaldeak ezker aldeak baino pisu handiagoa du... umoreaz ezker alde arduratzen dela dirudi...



**Danel**, jakin al daiteke ze bihurrikeria prestatzen ari zaren? Gogorra da gero argazkilaria- ren lana... Zorionak!



**Eneko**, gomina begietara sartzen ari zaizulako al zaude horren triste? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Idoia**, zapia buruan eta ibili munduan, ea irrifarre txiki bat eskaintzen diguzun hurrenguan! Zorionak!




**Iker**, jakin al daiteke ze bihurrikeria prestatzen ari zaren? Guk, bada- ezpada ere, alde egingo dugu... Zorionak!



**Iñaki**, zuena bai maitasuna... Marco eta Amedio tximua dirudizue! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Itziar**, txapela buruan eta erratza eskuan... txintxo aurpegi hori ikusita ez genuen sorgina zinenik uste! Zorionak!



**Jean Claude**, zure txanpuak ileaz gain kaskezurra ere primeran garbitzen du! Zorionak eta ondo ibili Propper jauna!



**Jose**, zure familiakoak beti trajearekin agertzen zarete... sekula lanik egin al duzue? Zuek bai bizi! Zorionak!



**Juan Carlos**, Hasier Etxeberriak "Sautrela" aurkezteari uzten dienerako prestatzen ari al zara? Zorionak!



**Luzia**, ezin al zenuen zuzenago jarri zapia? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Maddi**, argazkilaria txokolatea eskaini al dizu? Lerdea darizula zaude eta... Zorionak eta ondo ibili!



**Maritxu**, hori da hori begirada... guri desafioka al zaude? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Mila**, bostehun euroko biletearen bila? Aurkitzen baduzu, ziur ez dela gurea! Zorionak eta ondo ibili!



**Nerea**, dirudienez albokoa argazkilaria baino gustukoa- go zenuen... nor ote da? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna.



**Oihane**, maitemina- nak jota ala gustuko operaren bat entzuten al zaude? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Sheila**, ingurukoek ze arreta jartzen dioten ikusita, zuregana gustura asko joango da argazkilaria! Zorionak!



[www.megadenda.com](http://www.megadenda.com)

**ramos**  
Bergara, 6  
20005 Donostia  
Tel.: 943 42 63 50

**bilintx**  
Paseo Colon, 8  
20302 Irun  
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12  
20570 Bergara  
Tel.: 943 76 40 50



**Megadenda**  
zure aukera musika eta liburuan





## Aspaldian Urretxu-Zumarragan izan den euri jasa handiena



Duela 50 urte, 1953ko urrian, aspaldian Gipuzkoan izan den uholderik handienetakoa izan zen. Euri jasa izugarriak kalterik handiena Zestoan eragin zuen. Bertan, Urola ibaiak autobus bat eraman zuen eta hogeitik gora izan ziren

hildakoak. Euri jasa hura bizi izan zuten herritarrek ere, Urretxu-Zumarragan gogoratzen duten uholderik handiena dela esaten dute. Orduan ere, beti bezala, Kalebarren-Areizaga ingurua izan zen kaltetuena.

Politena tabernako Inazio Otaegik ederki asko gogoratzen du 1953ko uholdea. "Ehizera joateko asmoan geunden, baina euria hasi zen eta gelditu ez! Urriaren 13an hasi eta 14an utzi zion euria egiteari. Tabernan beti bromatan ibiltzen ginen eta batzuek ura mostradorera helduko zela zioten. Mostradore gainean bi urdaiazpiko jarri nituen eta hauek ez ditut mugituko, nahi badu etortzea dauka! esan nuen. Ura ailegatu zenean laister etorri nintzen urdaiazpikoak kentzera!".

Azkenean urak metro eta erdi inguruko altuera hartu zuen taberna barruan. Urak etengabe gora egiten zuela ikustean, tabernaren atzeko aldetik irten ziren Inazio eta bezeroak. "Inguruko guztioi kalte handiak eragin zizkigun uholde hark. Orduan Unanue, "Txokolatero",

Kortaberri... zeuden kale honetan. Gurean, esaterako, urak tabike bat bota zuen. Sekulako lokatza zegoen. Orduan ere aseguruak bazeuden, baina dirua pagatzeak min ematen du eta txikiena genuen. Asegurua igo genuenetik ez da uholderik izan gehiago".

Politenakoek aseguruia igo aurretik, ordea, makina bat aldiz izan dira uholdeak Kalebarren-Areizaga inguruan. Inazioak gogoratzen duen lehena 1940ko San Inazio egunekoa da. "Paretan markatuta dago ura noraino heldu zen. San Inaziotara joan ginen zezenetara Azpeitira eta han geratu behar izan genuen, ezin hona etorri! Azpeititik ez zegoen herrira sartzerik. Batzuek Mandubitik herrira heltzea lortu zuten, baino nahiko gaizki ibili ziren. Gu biharamunean itzuli ginen eta

ordurako ia dena garbituta zegoen. Uholdea pasa eta berehala herri guztiak laguntzen zuen garbiketa lanetan".

50eko hamarkada amaieran ere, San Antonio egunean, Kalebarrengo festetan, errekek goizean gainezka egin zuten. "Taberna garbitu genuen eta arratsaldean beste zaparrada batek taberna urez bete zuen. Uholdeak sarritan izaten ziren hemen. Garai hartan erreka bistan zegoen eta zubiak postea zuen. Enborren bat etortzen bazen, berehala zubila isten zuen eta urak gainezka egiten zuen. Obra egin zenetik errekek ez du gehiagotan gainezka egin, nahiz eta askotan horrenbestearainoko euria egin duen. Orain ura abiadura handiarekin joaten da. Gainera, bi edo hiru presa kendu zituzten eta horrek ere asko egiten du".



# IZERDI PATSETAN


## 100 herritarrek bukatu zuten Behobia-Donostia lasterketa

Behobia-Donostia lasterketako antolatzaileek pasatako informazioaren arabera, 100 urretxuar eta zumarratarrek bukatu zuten hilaren 9an izan zen lasterketa arrakastatsu honen aurtengo edizioa. Urretxu-Zumarragako mutilen artean

azkarrena Ricardo Perez izan zen. Ricardok 1:11:30 segundu besterik ez zituen behar izan eta 90. postuan heldu zen. Urretxu-Zumarragako nesken artean azkarrena, berriz, Aloña Idigoras izan zen 1:41:41 denborarekin. Zorionak denei!

Ricardo Perez Bastarrika	90	1:11:30	Ricardo Elizondo Garcia De Albeniz	4616	1:39:25
David Huebra Gomez	118	1:12:11	Koldo Barrera Arruabarrena	4835	1:40:10
Igor Perez Bastarrika	121	1:12:21	Julio Maroto Lamba	4837	1:40:10
Tasio Gomez Garcia	185	1:14:29	Eugenio Jimenez Teniente	4867	1:40:19
Jesus Lizarazu Elizburu	197	1:14:43	Victor Lasa Urmeneta	4913	1:40:28
Asier Aranburu San Pedro	222	1:15:15	Marcos Muñoz Caballero	5066	1:41:04
Jose Manuel Benitez Mendoza	285	1:16:33	Juan Ignacio Miguel Rodriguez	5126	1:41:15
Benito Martinez Elgarresta	311	1:16:58	Iñaki Alvarez Navarro	5174	1:41:29
Roberto Garcia Olea	366	1:17:44	Aloña Idigoras Jauregi	5237	1:41:41
Raul Montiel Gonzalez	375	1:17:49	Aitor Gago Rezola	5240	1:41:41
Edu Perez Romaratezabala	420	1:18:25	Manu Garrues Areso	5292	1:41:54
Juan Ignacio Senosiain Antia	593	1:20:17	Iñaki Amondarain Arrizabalaga	5431	1:42:25
Iñaki Ganuza Beain	710	1:21:35	Juan M <sup>a</sup> Goñi	5449	1:42:31
Juanjo Igarzabal Deba	757	1:21:56	Miguel Cristobal Garcia	5499	1:42:47
Xabier Urmeneta Ayastuy	831	1:22:34	Francisco Parra Moreno	5500	1:42:47
Roberto Larraza Martinez	838	1:22:40	Iñaki Beruete	5599	1:43:11
Antonio Perez Berdua	1035	1:24:01	Jon Iñaki Dailian Grañado	5658	1:43:28
Mikel Mesonero De Miguel	1076	1:24:19	Jon Ugarte Agirrezabalaga	5678	1:43:33
Fernando Sanchez Lana	1140	1:24:42	Mikel Gabilondo Ruiz	5712	1:43:41
Juantxo Perez Murgia	1245	1:25:17	Francisco Javie Garitano Uncilla	5791	1:43:58
Jose Miguel Lara Sanz	1837	1:28:27	Ismael Berasategi Kl	5909	1:44:27
Manolo Lopez Conde	2010	1:29:10	Iñaki Urkiola Lizarralde	5987	1:44:47
Mikel Fernandez Almena	2041	1:29:18	Xabier Egea Jauregui	6121	1:45:26
Jesus M <sup>a</sup> Arrazola Eguren	2238	1:30:01	Amaia Elgarresta Regil	6200	1:45:44
Luis M <sup>o</sup> Torres Jauregi	2241	1:30:02	Carlos Hernandez	6225	1:45:53
Jose A. Mujika	2295	1:30:17	Manu Arrizabalaga Roman	6289	1:46:11
Gorka Quevedo Barrio	2305	1:30:21	Mikel Telleria Etxeberria	6341	1:46:23
Andoni Ormazabal Ariztegi	2399	1:30:48	Xabier Otaegi Agirre	6494	1:46:55
Jose Ramon Erauzkin Altuna	2431	1:30:55	Aitor Campos Alzelai	6563	1:47:14
Jon Ander Corera Ulacia	2597	1:31:41	Jose Maria Lasa Zinkunegi	6607	1:47:25
Gorka Oruesagasti	2738	1:32:14	Xabier Zabalo Txentxi	7141	1:49:54
Marko Rodriguez Zabaleta	2855	1:32:42	Alejandro Albisua Albisu	7142	1:49:54
Mikel Elgarresta Mintegi	3025	1:33:24	Ainhoa Arrieta Galarza	7148	1:49:55
Iñigo Tobar Sanchez	3035	1:33:28	Eñaut Urbizu Etxabarri	7237	1:50:14
Jakes Antia Juaristi	3050	1:33:32	Carlos Ruiz Fraile	7319	1:50:36
Anjel Berdud Rodriguez	3198	1:34:09	Izaro Idigoras Jauregi	7544	1:51:41
Egoitz Asurabarrena Zipitria	3296	1:34:33	Jose Ignacio Gutierrez Ferreras	7383	1:50:52
Juan Carlos Pastrian Prieto	3297	1:34:34	Aritz Aramendi Legorburu	7670	1:52:23
Jose Ignacio Urrestarazu Aguirre	3512	1:35:21	Ramon Aranzabal	7822	1:53:12
Mikel Igarza Zaldua	3536	1:35:27	Mikel Arrese	7825	1:53:12
Juan M <sup>a</sup> Aldanondo Mujika	3803	1:36:32	Ander Ollo Odriozola	8060	1:54:16
Jon Andoni Torquemada Lakunza	4072	1:37:33	Begoña Balerdi	8238	1:55:18
Xabier Lasa Agirrezabal	4089	1:37:37	Lorea Gardoki Beitia	8365	1:56:00
Peio Rodriguez Goñi	4106	1:37:41	Ainhoa Garcia Portillo	8367	1:56:00
Jose Antonio Unanue Etxeberria	4199	1:38:00	Gorka Ganuza Aizpurua	7917	1:56:06
Alfonso Estalayo Villegas	4264	1:38:15	Jon Azpeitia Basabe	8638	1:57:32
Maximo Azkona Juaristi	4288	1:38:21	Jose Ramon Murua Oleaga	8734	1:58:06
Aitor Sarasua Irure	4519	1:39:07	Xabier Barriola Zabaleta	9050	2:00:03
Mikel Guridi Begiristain	4520	1:39:08	Josune Torquemada	9567	2:04:39
Jon Murua Etxaniz	4542	1:39:12	Amaia Gago	9568	2:04:39





## Joxe Jauregi

Joxe Jauregi zumarratarak La Sallen ikasi zuen eta lanbide heziketa bukatu aurretik iturgin lanean hasi zen. "Dirua nahi nuen eta etxean niri emateko dirurik ez zegoenez, lanean hasi nintzen". Duela 22 urte, CAF enpresako teilatuan lanean ari zela, uralitazko teilatua puskatu egin zen eta behera erori zen. "Errekuperaketa gogorra izan zen, baina gogorrena gauzak era batera utzi eta beste era batera itzuli nintzela izan zen. Elbarri egotea gogorra da, baina lehengo tokietara joaterik ez baduzu, are eta gogorragoa. Beti oso independentea izan naiz eta laguntza eskatu beharra oso gogorra egingen zitzaidan. Dena den, orain egoera hobea da".

Egoera hobe hau lortzeko, Joxek eta EILUZ elkarteko kideek gogor lan egin dute. "Hainbeste oztoporekin kaka eginda geundela ikusi eta lanean hasi ginen. Horretarako, duela 10 bat urte, EILUZ sortu genuen".

### -Zer izan nahi zenuen umetan?

Gure belaunaldiko gehienek bezala, futbolaria.

### -Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Saskibaloia ikustea, zinera joatea eta, zertarako gezurrik esan, poteatzea.

### -Bizitzeko toki bat?

Zumarraga edo Urretxu, berak.

### -Itukin asko eta iturgin gutxi Euskal Herrian?

Itukinak aspaldikoak dira, beraz iturgin kaxkarrak daudela esan beharko dugu.

### -Nori egingo zenioke gustura xake-mate?

Espainiari.

### -Gustuko saskibaloi taldea?

Tau. Azken 6-7 urteetan bazkidea naiz, gainera.

### -Gustuko saskibaloi jokalaria?

Nocioni. Garai batekoen artean, berriz, "Nacho" Solozabal, Delivasic...

### -Goierri taldean ikusi duzun jokalaririk onena?

Aztiria, Demi, Joni, Usabiaga, Galdona, Huts-eko Rober eta Jorge... Onena, Joxe Murua izango zen. Goierri aritu ondoren, Gasteizko Kas taldean jokatu zuen.

### -Zure bizitzako saskiraketa onena? Egin duzun faltarik larriena?

Ez dut ez *saskiraketa* ez *falta* bereziki garrantzitsurik gogoratzen. Saskiraketa on asko egin ditudala eta falta bereziki larririk ez dudala egin pentsatu beharko dut.

### -Ilehoriak ala beltzaranak?

Bai horiek eta baita ilegorriak ere.

### -Egindako azken oparia?

DVD bat.

### -Eta jasotakoa?

Atzo bertan nire urtebetetze eguna izan zen eta puroak ondo mantentzeko kaxa bat oparitu zidaten.

### -Data bat?

Jaio nintzeneko eguna.

### -Neska eta mutil izen bana?

Ilobenak: Eki eta Beñat eta Irati eta Kattalin.

### -Zein egunkari irakurtzen duzu?

Normalean Gara eta batzuetan Berria eta kiroletakoren bat ere bai.

### -Gustuko telebista saioa?

Pelikulak ikusten ditut gehienbat. Naturari buruzko saioak ere atsegin ditut.

### -Bereziki gorroto duzuna?

"Gran Hermano", "Operación Triunfo", "Basetxea" eta antzerakoak. Telenobelak ere ez ditut atsegin.

### -Liburu bat?

"Kutsidazu bidea, Ixabel". Bi aldiz irakurri dudana liburu bakarra izango da.

### -Filme bat?

"La vida de Brian". Realak lehen liga irabazi zuenean ikusi nuen. Ez nuen uste Realak liga irabaziko zuenik eta apustu piloa galdu nituen. Umore txarrez pelikula ikustera joan eta... gainera, azp titulatu! Azkenean sekulako parreak bota nituen.

### -Gustuko abestia?

Talde asko gustatzen zaizkit. Abestiren bat aukeratzekoan, "Xalbadorren heriotza" Erramun Martikorenak kantatua.

### -Soinu bat?

Kitarrarena.

### -Usain bat?

Baserrietako usaina.

### -Janari bat?

Dena gustatzen zait. Beharra baino, jatea bizio hutsa bihurtu da niretzat.

### -Ura ala...

Mementuan mementokoa: ura, ardoa, sagardoa...





# colors



**IKER**

**SUKALDE ERAKUSKETA**

**FAGOR**



**Udala enparantza, z/g.**

**☎ 943 79 00 43**

**20500 ARRASATE**

**Ipeñarrieta, 5**

**☎ 943 72 50 75**

**20700 URRET XU**